

# “AURRERA FEST”-EK HARTUKO DU EUSKALDUNA UZTAILEAN, IKUS- ENTZULE GUZTIEI ZUZENDUTAKO 57 IKUSKIZUNEKIN

**Ekimenak harrera bikaina jaso du kulturaren sektorearen aldetik**

**Uztailaren 4tik abuztuaren 2ra, Euskaldunak izena eman duten 57 banda eta konpainien esku jarriko ditu bere aretoak; guztira 63 emanaldi izango ditu**

**Kontzertuak, antzerkia, dantza, magia, umeentzako ikuskizunak, euskarazko ikuskizunak...**

*Bilbon, 2020ko ekainaren 25ean*

Kulturak bere lekua aurkitu du berriro Euskalduna Jauregian. “Aurrera Fest”-eko kartelak dioen bezala, Euskalduna Musika Jauregia kulturaren sektorerako “itxaropenen eramaile” gisa altxatuko da COVID-19ak eragindako geldialdiaren ondoren. Uztailaren 4tik abuztuaren 2ra arte, ikus-entzule guztientzako 63 antzerki, musika eta dantza emanaldi, 57 banda eta konpainiaren eskutik.

Duela bi aste aurkeztu zen arte eszenikoetan eta musikan aritzen diren taldeei laguntzeko eta ikus-entzuleak berriro kultura erabateko segurtasunez kontsumitzera animatzeko helburua duen ekimena, eta parte hartu gura zuten arte eszenikoetako bandek eta konpainiek izena emateko epea ireki zen. Gaur goizean, Kultura eta Kiroletako Foru Diputatuak eta Andoni Aldekoa Euskalduna Jauregiko zuzendari nagusiak kartelaren berri eman dute.

“Kulturaren sektoreak oso harrera ona eman dio. Euskaldunari zuzeneko kultur jarduera itzuliko dioten 57 ikuskizun, denontzako aukerekin. Aurrera Fest, gure baliabideak kulturaren sektorearen esku jartzeko xedearekin sortu da, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko jarduera, ekonomia eta aisia bultzatuko duten jarduketei bultzada

emateko diseinatu duen Bizkaia Aurrera programaren barruan” azaldu du Lorea Bilbaok.

Euskaldunak bere espazioak lagako ditu, musika bandak, antzerki eta dantza konpainiak, magian aritzen direnak, umeentzako lanak prestatzen dituztenak, euskaraz lan egiten dutenak... euren ikus-entzuleen aurrean berriro aritu daitezten eta txaloek berriro ere Jauregiaren hormak bete ditzaten. Horrez gain, oinarritzko ekipo teknikoak jarriko da parte hartuko duten banden eta konpainien esku: 3 areto aukeratzeko (Auditoriuma, 0B eta 0E); eta sarrerak saltzeko [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) plataforma.

Andoni Aldekoak, bere aldetik, “Aurrera Fest”-en kartel anitzaren zenbait xehetasun eman ditu. “Eszenatokietara gure eskutik itzultzera animatu diren 56 banden eta konpainien esku gure esperientzia eta azpiegitura osoa jarriko dugu. Garikoitz Mendizabal txistulari ospetsua, Gorka Mínguez euskal antzezlea, Kresalaren dantza ikuskizuna, Oliver magoa, Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren kontzertua... eta baita nazioartean arrakastatsua den eta Euskaldunara uztailaren 10ean helduko den Zaragozako Amaral bikotea”.

Guztira, hainbat estilotako 37 musika kontzertu (Mc Enroy; Bizcay Bay Jazz Collective; Zabalguneko Multzo Korala; Iruñeko orkestra gaztea...); 3 dantza ikuskizun (Write your dance; Soinuaren Bidaia; Kresala); 11 antzezlari (Tres eran tres; El veneno del teatro; eszenatokietan 3 egun egingo dituen La Haceríaren Verano de Cristal; Pánico Escénico...); Umeentzako 3 ikuskizun (Zirkoetxe; Oliver Magoa; Tor Magoa); Iñaki Goiricelaiaren eskutik etorriko den “Lur hau gurea” proiektioa...

Sarrerak datozen egunetan jarriko dira salgai.

## EGUTEGIA

- Uztailak 4. Antzerkia. “Tres eran tres”. 0E aretoa
- Uztailak 5. Musika. Amaia Miranda “Output”. 0E aretoa
- Uztailak 8. Umeentzat. Zirkoteke. 0E aretoa
- Uztailak 9. Musika. Blas Fernández “UrbanÉtnico trío”. 0E aretoa
- Uztailak 9. Musika. Hibaí Etxebarria “Place Benito”. 0B aretoa
- Uztailak 10. Musika. Amaral. Auditoriuma
- Uztailak 10. Musika. Mc Enroy. 0B aretoa
- Uztailak 10, 11 eta 12. Antzerkia. “La guerra del sofá”. 0E aretoa
- Uztailak 11. Musika. Pasión Vega con Manuel de Falla-Bilbao Sinfonietta. Auditoriuma
- Uztailak 11. Musika. Unai Insausti. 0B aretoa
- Uztailak 12. Musika. Earth Songs Project. Auditoriuma
- Uztailak 12. Musika. Kontzertu lirikoa- José Antonio Urdiain. 0B aretoa
- Uztailak 12. Umeentzat. “Piraten istorio bat”. 0E aretoa
- Uztailak 13. Musika. Metashow. 0E aretoa
- Uztailak 14. Antzerkia. Olatz Gorrotxategi. 0E aretoa
- Uztailak 14. Proiektioa. “Lur hau gurea” Iñaki Goiricelaiarekin. 0E aretoa
- Uztailak 15. Musika. Duet Xarma. 0B aretoa

Uztailak 15. Musika. Lorelaigreen eta Yo Gerard. 0B aretoa  
Uztailak 16. Antzerkia. "El veneno del teatro". 0B aretoa  
Uztailak 17. Dantza. Write your dance. 0E aretoa  
Uztailak 17. Musika. Garikoitz Mendizabal & Gorka Hermosa.  
Auditoriuma  
Uztailak 17 eta 18. Antzerkia. Pabellón 6. 0B aretoa  
Uztailak 18. Antzerkia. "Comunicado de muerte". 0E aretoa  
Uztailak 19. Musika. Euskal Herriko Gazte Abesbatza: in  
memorian. Auditoriuma  
Uztailak 19. Musika. "Baserritik jauregira". 0B aretoa  
Uztailak 19. Musika. Biskay Bay Jazz Collective. 0E aretoa  
Uztailak 20. Familiarentzat. Oliver Magoa. 0B aretoa  
Uztailak 20. Dantza. "Soinuaren Bidaia dantzan". 0E aretoa  
Uztailak 21. Umeentzat. David el mago mentalista. 0E aretoa  
Uztailak 22, 23 eta 24. Antzerkia. "Verano de cristal"- La Hacería.  
Auditoriuma  
Uztailak 22. Musika. Ether Ensemble. 0B aretoa  
Uztailak 22. Musika. Sutan. 0E aretoa  
Uztailak 23. Antzerkia. "Desfasando que es gerundio". 0E aretoa  
Uztailak 23. Musika. Kea Ahots-Taldea. 0B aretoa  
Uztailak 24. Musika. Zabalguneko Multzo Korala. 0B aretoa  
Uztailak 24. Antzerkia. "Pánico escénico". 0E aretoa  
Uztailak 25. Dantza. Kresala. Auditoriuma  
Uztailak 25. Musika. Cápsula: bestiarium. 0B aretoa  
Uztailak 25. Musika. Zelan izan soprano. 0E aretoa  
Uztailak 26. Musika. Iruñeko orkestra sinfoniko gaztea "La  
música de los supervivientes". Auditoriuma  
Uztailak 26. Musika. Xabi Aburruzaga "Bost". 0B aretoa  
Uztailak 26. Umeentzat. Tor Magoa. 0E aretoa (goizez eta  
arratsaldez)  
Uztailak 27. Dantza. "Tiempo". 0E aretoa  
Uztailak 27. Antzerkia. Cabaret Misterio. 0B aretoa  
Uztailak 28. Musika. Jum!. 0E aretoa  
Uztailak 28. Musika. Rothko Ensemble. 0B aretoa  
Uztailak 29. Musika. Euskadi Brass. 0B aretoa  
Uztailak 29. Musika. Joseba Gotzon. 0E aretoa  
Uztailak 30. Musika. Noran. 0B aretoa  
Uztailak 30. Musika. Capricho Navarro. 0E aretoa  
Uztailak 31. Musika. James Room. 0B aretoa  
Uztailak 31. Musika. Inum Olapop!. 0E aretoa  
Uztailak 31. Musika. Kissar Ensemble - Arriaga eta Beethoven,  
bere erreferentea. Auditoriuma  
Abuztuak 1. Musika. El capitán elefante. 0B aretoa  
Abuztuak 1. Musika. Mikel Uraken. 0E aretoa  
Abuztuak 2. Musika. Piano errezitaldia Antonio Oiarzabalekin. 0B  
aretoa  
Abuztuak 2. Antzerkia. "Dalias acércate teatro". 0E aretoa